


IRADIER ARENA. Vitoria-Gasteiz
Berpizkondearen plaza, 6
01005 Vitoria-Gasteiz

Iradier Arena esparruari buruzko informazioa



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Iradier Arena hiriaren erdi-erdian dago, eta ondo-ondoan dauka tranbiaren geltokia, Angulema kalean, El Corte Inglésen parean; lurpeko aparkalekuak 700 ibilgailurentzako (autobusak eta automobilak) lekua dauka.

Diego Garteiz arkitektoak egin zuen Iradier Arenaren diseinua. Eraikuntzaren estalki bilkor bereziak urte osoan ekitaldi ezberdinak hartzea ahalbidetzen du, zezenketez eta antzeko ikuskizunez gain; hori dela eta, sustatzaileei aukera ematen die beren kultur, gizarte eta kirol proiektuak Gasteizen gauzatzeko.

Iradier Arenako zezentoki-plateak oinarrizko zolata grisa du, kanalizazioez eta drainatzeaz hornitua; horren gainean harea zabaltzen da zezenketak eta antzekoak egiten direnerako eta, jarduera hori bukatutakoan, kendu eta gorde egiten da. 45 metroko diametroa du, 1.560 m², eta 21 metroko altuera zezentoki-plateatik estalkiraino; estalkiaren erdialdeko zatia bilgarria da, ireki ahal izateko, eta zeharrargia.

T5 zerbitzu-ateak (GPS: N 42° 50' 30" W 02° 39' 51") trailerrak sartzea ahalbidetzen du; zezentoki-platearako sarbideetako batek 3,80 metroko zabalera eta 3,65 metroko galiboa ditu, eta bigarren sarbideak, 3,10 metroko galiboa, egokia materiala sartzeko.

Iradier Arenaren planifikazioa eta programazioa ekoizpen bakoitzak dituen oinarrizko beharren arabera multzokatzen da, erabilera "aldaketak" dakarren kostua kontuan izanik. Izaera ezberdinetako ekitaldiak hartu ahal izateko egokitzapena ekitaldia ekoizteko erabili beharreko azpiegituren arabera kateatzen da.

Iradier Arenaren urteko planifikazioaren barruan bada data finko bat: Andre Maria Zuriaren jaietako zezenketa denboraldia, uztailaren 25ean hasi eta abuztuaren 10ean bukatu ohi dena. Bere kategoriaren barruko zezen-plazarik erosoena da. Urteko gaienerako 345 egunetan, Iradier Arena hainbat alorretako (musika, musikalak, dantza, magia, zirkua eta antzekoak) ikuskizunetarako espazioa bihurtzen da, hiriko gainerako esparruetakoak baino handiagoa den agertokia edo errentagarria izateko ikusle kopuru handiagoa behar dutenean.

Iradier Arenak, orobat, kirol erakustaldi eta ikuskizunak egiteko aukera ematen du, horrelako ekipamenduetarako berariaz ekoiztutakoak edo Mendizorrotzeko kiroldegia baino leku gehiago eta altuera handiagoa behar dutenak, herri kirolez ahaztu gabe; era guztietako feriak eta enpresen aurkezpenak; azterketak; marketin jarduerak; gastronomia jarduera eta ekitaldiak, gonbidatu kopuru handia dela eta hiriko ostalaritza-establezimenduetan lekurik ez dutenean, etab. Bestelako topaketak ere (politikoa, sindikatuenak...) egin litezke. Plaza publiko irekia ere bada.



Iradier Arenaren baimen administratiboak eta diseinuak EDUKIERA EZBERDINAK ahalbidetzen ditu, egiten diren ekitaldien eta instalatzen diren elementuen arabera:

- ESPARRUAREN GEHIENENKO EDUKIERA: 10.625 pertsona.
- SASKIBALOIRAKO EDUKIERA: 8.512 pertsona.
- HARMAILEN EDUKIERA: 7.827 pertsona (desgaitasuna duten pertsonentzako lekuak: 92).
- ZEZENTOKI-PLATEAREN GEHIENENKO EDUKIERA: 2.798 pertsona (agertokiak, plataformak, standak eta beste jarriz gero, gutxiago).
- KONTZERTUAK, agertokia zezentokian jarrita eta ikusleak zezentoki-platean zutik eta harmailetan eserita daudela: 6.000-1.000 pertsona (*ikuseremua nola estaltzen den*).
- TAMAINA ERTAINEKO KONTZERTU ETA IKUSKIZUNAK, ANFITEATRO FORMATUAN, AGERTOKIA ZEZENTOKI-PLATEAN JARRITA IKUSLEAK ERE BERTAN ESERITA DAUDELA: 3.600-2.600 pertsona (*ikuseremua nola estaltzen den*).
- BAZKARIAK, AFARIAK ETA ANTZEKOAK: 1.059 pertsona, 10 pertsonarentzako mahai biribiletan.
- KOKTEL ETA ANTZEKOAK, ZEZENTOKI-PLATEAN: 1.589 pertsona.

Esparruaren itzulera akustikoa 7"-koa da hutsik dagoela, eta 4"-koa estalki bilkorra irekita dagoela.

IRADIER ARENAREN EDUKIERA ETA LEKUEN BANAKETA:

Beheko harmailak, guztizko partziala: 378

Desgaituentzako lekuak: 4

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

5eko 2 palko: 10

Lehendakaritza-palko bat: 10

1. HARMAILA (itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 747

Beheko harmailak, guztizko partziala: 388

Desgaituentzako lekuak: 4

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

5eko 2 palko: 10

10eko 4 palko: 40

2. HARMAILA (itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 787

Beheko harmailak, guztizko partziala: 412

Desgaituentzako lekuak: 4

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

5eko 2 palko: 10

10eko 2 palko: 20

3. HARMAILA (itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 791



Beheko harmailak, guztizko partziala: 390

Desgaituentzako lekuak: 4

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

5eko 2 palko: 10

10eko 4 palko: 40

4. HARMAILA (itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 789

Beheko harmailak, guztizko partziala: 418

Desgaituentzako lekuak: 4

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

Desgaituentzako lekuak: 14

5. HARMAILA (eguzkia eta itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 781

Beheko harmailak, guztizko partziala: 430

Desgaituentzako lekuak: 4

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

Desgaituentzako lekuak: 14

6. HARMAILA (eguzkia), GUZTIZKO PARTZIALA: 793

Beheko harmailak, guztizko partziala: 417

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

Desgaituentzako lekuak: 16

7. HARMAILA (eguzkia), GUZTIZKO PARTZIALA: 778

Beheko harmailak, guztizko partziala: 457

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

Desgaituentzako lekuak: 10

8. HARMAILA (eguzkia eta itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 812

Beheko harmailak, guztizko partziala: 417

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

Desgaituentzako lekuak: 10

9. HARMAILA (itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 772

Beheko harmailak, guztizko partziala: 418

Desgaituentzako lekuak: 4

Goiko harmailak, guztizko partziala: 345

5eko 2 palko: 10

10. HARMAILA (itzala), GUZTIZKO PARTZIALA: 777

BEHEKO HARMAILAK, GUZTIRA (4.125 + desgaituentzako 28 leku): 4.153 leku

GOIKO HARMAILAK, GUZTIRA: (3.450 + desgaituentzako 64 leku + 160 palko):

3.674

HARMAILETAKO LEKUAK, GUZTIRA: 7.827

Profesionalentzako lekuak ezkutalekuetan: 148



Zezentoki-platearen gehieneko edukiera: 2.798 pertsona (elementuak jarriz gero, gutxiago).

Esparru osoaren gehieneko edukiera (harmailak + zezentokia-platea): 10.625 pertsona.

INFORMAZIO OSAGARRIA:

LEHENTASUNA

Iradier Arenaren kronograman edozein jarduera txertatzean, KULTUR JARDUE-REK lehentasuna izango dute, bestelakoen aldean.

PREZIO PUBLIKOA

Eranskinean zehazten da indarrean dauden udal ordenantza fiskaletan ezarritako tasa ekonomikoa.

IRADIER ARENA ETA LANGILEAK

Kultur ekipamenduak ez du udal langile propiorik, ezta horretarako berariazko esleipenik zerbitzu-enpresaren batekin; beraz, jarduera bakoitzaren antolatzaileak kontratatu eta finantzatu beharko ditu barrutia ireki, itxi nahiz kontrolatzeko eta ekitaldia prestatu, abian jarri eta gauzatzeko beharrezko diren langileak, baita hura desmuntatu, barrutia garbitu eta erabilitako hornigaiak birjartzeko behar direnak ere.

Barruti osoa jaso zen egoera berean entregatu beharko da. Kalterik izanez gero, berehalakoan konpondu beharko dira, bermearen edo antolatzailearen kontura.

Programatzen duten jarduerarako aseguru bat sinatzera behartuta egongo dira antolatzaileak, eta haiek izango dira erantzule bakarrak; alegia, Gasteizko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.

Iradier Arenan ekitaldiren bat antolatzen dutenek udal teknikari baten laguntza izango dute aurretik kudeaketari buruzko aholkuak emateko, eta mantentze-teknikari batena instalazioei buruzkoak argitzeko.

Udalak esparruan lan egin izan duten Gasteizko enpresen kontaktuak eman ditzake, edo egitekoa den ekitaldiaren alorretan espezializatutako enpresenak.



IRADIER ARENA, ESPARRUKO TABERNAK ETA PUBLIZITATEA

Antolatzaileek barrutiko tabernetako lau barrak erabili ahalko dituzte, zuzenean nahiz hiriko ostalaritza-enpresaburu baten bitartez ustiatzeko. Orobat baliatu ahalko dira leku horiek jarduerari dagozkion salgaiak jendaurrean jarri eta saltzeko; horretarako leku hori baino ezingo da erabili.

Publizitatea jarri ahalko da xede hori duten lekuetan, eta jarduera bukatutakoan kendu egin beharko da. Nolanahi ere, publizitate horrek ezingo du joan leku publikoetako iragarkiei buruzko araudiaren kontra, edukiei dagokienez.

PALKOAK

Barrutiko palko guztiak gertaldiaren antolatzaileen esku jarriko dira, lehendakari-tza-palkoa izan ezik. Izan ere, jabearentzat edo agintarientzat gordeko da hori, kasuan kasu eta ikuskizunen araudiaren arabera.

Antolatzaileak ez dira behartuta egongo Gasteizko Udalarari sarrerarik edo gonbidapenik ematera.

BARNE ZERBITZUEN EREMUAK

2. kategoriako zezen-plaza bati dagokion berariazko eremuaz gain, aldagelak, kamerinoak, botikina eta ebakuntza-gela, bulegoak, biltegiak eta abar ditu; ezinbestekoak diren osagaiez hornituta daude horiek, Iradier Arenan diharduten bitartean sustatzaileek erabiltzerik izan ditzaten; leihatilak ere erabili ahalko dituzte zuzeneko salmentarako.

Agertokia jarri ohi den lekuaren atzealdean zerbitzu hauek daude, harekin komunikatuta:

- ebakuntza-gela eta mediku esparrua
- sendaketa-gela eta botikina
- kapera
- 3 kamerino / bulego
- kamerino edo aldagela kolektibo handi bat
- komunak, dutexak...
- kontrol eremua, zeina aipatutako espazioekin barrutik komunikatuta baitago eta zezentoki-plateara ematen baitu. Osagai hauek ditu:

- kontrol orokor eta zentralako gela (argiak, berokuntza, zaintza, soinua)
- 3 kamerino / bulego
- 4 aldagela / kamerino eta komunak
- askotarako gela bat eta barneko biltegia



BESTE BALIABIDE BATZUK

Iradier Arenak ez du bestelako azpiegitura berezirik jarduerak egiteko, baina antolatzaileek beste modu batean antolatu dezakete espazioa jardueraren arabera, edo udalaren beste baliabide batzuk erabili, behar diren garraioak bere gain hartuta:

▪ **HESIAK EDO BESTE ITXITURA BATZUK**

Ekipamenduak ez du hesirik edo balizatzeko elementurik, baina Udalak baditu uzteko moduko 132 hesi korporatibo, erabilgarri egonez gero; sustatzaileek beren gain hartu beharko lukete Mendizorrotzeko kirol esparrutik Iradier Arenara eramateko garraioa.

▪ **ZEZENTOKI-PLATEAN IKUSLEENTZAKO AULKIAK JARTZEA**

Ekipamenduak ez du aulki propiorik, baina Udalak baditu uzteko moduko 840 aulki berde eta 380 aulki urdin, erabilgarri egonez gero; sustatzaileek beren gain hartu beharko lukete Mendizorrotzeko kirol esparrutik Iradier Arenara eramateko garraioa.

▪ **IKUSKIZUNETARAKO ELEKTRIZITATE KOADROA**

Ikuskizunetarako elektrizitate koadro eskusiboa zezentoki-plateatik 5 metro ingurura dago, agertokia jarri ohi den lekuaren atzean, eskuineko sorbaldaren parean, FOH edo publikoaren ikuspuntutik begiratuta.

Koadroaren barruan daude babes orokorra, linea bakoitzaren babesak, konektatzeko borneak, cetac baseak eta schuko motako hartuneak, ezaugarri hauek dituztenak:

- 300 A-ko linea trifasiko 1, mutur biluziekiko konexioa.
- 125 A-ko linea trifasiko 1, mutur biluziekiko konexioa.
- 63 A-ko linea trifasiko 2, cetac basearekiko konexioa. Lineetako bat bornerara tolestuta dago, mutur biluziekin konektatzeko.
- 32 A-ko linea trifasiko 2, cetac basearekiko konexioa. Lineetako bat bornekin lotuta dago, mutur biluziekin konektatzeko.
- 16 A-ko 3 linea trifasiko, schuko motako konexioa.

Babes orokorra 400 A-koa da (faseko kontsumo guztien batuketak ezin du intentsitate hori gainditu).



▪ **SU-ITZALGAILUAK ETA SEGURTASUN PLANA**

Esparruak Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren lizentzia eta baimen iraunkorra du erabilera askotarako espazio gisa. Autobabes-plan orokorra du, sustatzaileek aplikatu beharrekoa, eta behar diren bitarteko oro.

Horrenbestez, ekitaldi bakoitzaren erantzule den entitateak autobabes-planaren ezarpena egin beharko du, eta ekitaldia zein ezarpenaren ziurtagiria Eusko Jaurlaritzaren autobabes-planen erregistroan erregistratu, plan orokorraren eranskin gisa. IV. eranskineko fitxa (Iradier Arenan ekitaldietarako dagoen segurtasun baliabidearen eta arduradunen fitxa) ere aurkeztuko da; orobat, segurtasun-langileen eta erabiltzen diren elementu guztien (agertokiak, standak...) kokapen-planoa erantsiko da. 1.000 pertsonatik gorako ikuskizunetan, lehen laguntzako ekipoa eduki beharko da, gutxienez anbulantzia batek osatua.

Udalak behar den dokumentazioa emango du, egin nahi den ekitaldiaren berriazko ezaugarriak erantsi ahal izateko.

Ekitaldia bat ez badator autobabes-planean deskribatutako oinarrizko hiru egituraketetako batekin, autobabes-plan osoa landu beharko da, eta plana zein ezarpenaren ziurtagiria Eusko Jaurlaritzaren autobabes-planen erregistroan erregistratu, plan orokorraren eranskin gisa.

Ikuskizunerako agertokia behar bada eta publikoa zezentoki-platean zein harmailetan jartzen delarik guztizko edukiera zezentoki-platearen gehieneko edukiera (2.798 pertsona) gainditzen bada, zezentokiko eta harmailetakoa abonamenduak bereizi beharko dira, zezentokian baimendutakoa baino pertsona gehiago ez sartzea eta horren ondorioz pilaketarik eta istilurik ez gertatzea bermatzeko moduan.

▪ **LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PLANA**

Iradier Arenan egiten diren ekitaldiak antolatzekeo prozesuan lan egiten duten pertsona guztiek laneko arriskuaren prebentzioaren alorreko jarraibide guztiak bete beharko dituzte, hala agintzen baitu Udalak.


▪ **APARKALEKUA**


Iradier Arena Berpizkundearen plazan dago, eta horren azpian bada aparkaleku publiko bat, autobus eta autoentzako 700 leku dituena; horren prezioa, gainera, azaleko aparkalekua (TAO) baino merkeagoa da.



Kontzertuen eta horien parekotzat jotako jardueren soinu mailak eta gehieneko ordutegia

Udal ordenantzen arabera, sortutako zarataren gehieneko maila 95 dB-A izango da, neurgailua SLOWn dagoela eta bozgorailuetatik 4 metrora neurtuta. Jardueraren gehieneko ordutegia, berriz, gaueko 02:30era artekoa izango da.





— Línea Verde

NO.	DESCRIPCIÓN	FECHA
1	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
2	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
3	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
4	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
5	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
6	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
7	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
8	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
9	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011
10	PROYECTO DE EJECUCIÓN	2011

ESTUDIO DE ARQUITECTURA DEBEO GARCÍA
Ingenieros en Arquitectura
CALLE 100 No. 100-100
BOGOTÁ, COLOMBIA
TEL: 332 2000
WWW.DBEOGARCIA.COM

MICHA AGUIRRE ARQUITECTA
BOGOTÁ, COLOMBIA
TEL: 332 2000
WWW.DBEOGARCIA.COM

Estudiante Aguirre
Diego Quiroz
Jaime Muñoz

PARA PLAZA DE TOROS, VITICULTORES
Plaza de Toros
Proyecto de Ejecución ①

Planta planta (1:40.000)
Línea, superficies y volúmenes generados.

PROYECTO: 2011
AUTOR: DBEO GARCÍA
FECHA: 2011

A-301-b